



**EBAZPENA, 2014ko uztailaren 10ekoa, Euskadiren Mexikoko Ordezkaritza, Euskadiren Mexikoko Ordezkaritzan goi mailako enpresa-teknikari / enpresa-arloko arduradun kategoriako lanpostua betetzeko hautaketa-prozesua gainditu dutenen behin betiko zerrenda argitaratzen eta lanpostua esleitzen duena**

Euskadiren Mexikoko ordezkaritza 2014ko otsailaren 12ko Ebazpenaren bidez, goi mailako enpresa-teknikari/enpresa-arloko arduradun kategoriako lanpostu bat betetzeko hautaketa-prozesurako deialdia egin zen, Euskadiren Mexikoko Ordezkaritzaren zerbitzura jarduteko.

Ebazpenaren eranskinean jasota dauden oinarri-arauen 7.2 atalean aurreikusten den legez, 2014ko uztailaren 8an, Epaimahai Kalifikatzaileak prozesua gainditu dutenen behin betiko zerrenda egin du, hautaketa-prozesuan lortutako puntuazioaren arabera antolatuta. Beraz, egoki da zerrenda hori eta behin betiko aukeratutako hautagaiaren izena plazaratzea.

Horiek horrela, eta oinarri-arauen 7.3 atalean ezarritakoari jarraituz,

#### **EBAZTEN DUT:**

**Lehenengoa.-** Goi mailako enpresa-teknikari/enpresa-arloko arduradun kategoriako lanpostua betetzeko hautaketa-prozesua gainditu duten pertsonen behin betiko zerrenda argitaratzea. Hona hemen zerrenda:

1. Incierte Zumarraga, Irakusne
2. Ramírez García, Catalina
3. Jiménez Martínez, Lara Pilar

**Bigarrena.-** Beraz, Irakusne Incierte Zumarragari lanpostua esleitzea.


**Hirugarrena.-** Esleitutako pertsonari egutegiko hamabost (15) eguneko epea ematea, eskatutako eta alegatutako eskakizunak betetzen dituela



egiaztatzeko eskatzen zaizkion jatorrizko agiriak edo kopia konpultsatuak aurkez ditzan. Hamabost (15) eguneko epea hasiko da kontatzen aurkeztu beharreko dokumentazioa zehazten duen eskaera egokia jakinarazten den egunaren biharamunetik.

**Laugarrena.-** Ebazpen honek ez du administrazio bidea agortzen eta bere aurka Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren aurrean gorako errekurtsoa jarri ahal izango da hilabeteko epearen barruan, argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

[http://www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.net/r48-contaorg/es/contenidos/empleo\\_publico/oferta\\_mejico\\_2014/es\\_def/index.shtml](http://www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.net/r48-contaorg/es/contenidos/empleo_publico/oferta_mejico_2014/es_def/index.shtml)



IBON DAVID MENDIBELZUA MADARIAGA  
Euskadiren Mexikoko Ordezkaritza